

JOŠECHO

Establecimiento tipográfico de LA VOZ DE GUIPUZCOA

JOŠECHO

Gure biotz guztiko
 seme
Maite-maitegarriari:
 Bere gurasoak
Bildurrik, emen, batean,
 Beren ansi ta malkoak,
Berak ill da gero ere, geldi ditezen
 Iñoiz banatu gabe,
Ipintzen diote aingeru arren
 Oroimengarriari
 Oroitza au

Donostian
1896

IRAKURTZALLE ADISKIDEA

Lan chiki ontan bildu ditut berso banako batzuek, daudenak donkituak, itzez, izkribuz eta guztia osorik nere aur chit maitegarrien oroimengarriari.

Utz aundia utzita banatu zait ura: berso ibillera abek ipiñi ditut etorri ala, nere zentzuak dizkion bezela, batere berritu ta legundu gabe, orregatikan baliteke berdindu gabe daudela ezango duela norbaitek ira-erakurtzen baditu, bañan ainbat nayago neretzat ori ezatia.

Lorea naiago det ikusi, bere sarjiñean, arantz eta arkaitz tartean, paper zuri moldatuko sorta apaiduan bañan.

Maitetasuna ala da obeago, eta fiñago, barrenen zenti dan bezela adiarazirik, bere arantz eta ezti dontzuarekiñ nazturik dan dan bezela.

Ori da osto abetan ipiñi ditudan ansiak.

F. LOPEZ ALEN.

[ARGAZKIA]

JOŠECHO

Bere eriozaren
Zortzi egun lenagoz

JOŠECHO

I

“Izan edo ez izan”
Ezan zuen jakintzuak:
Izan edo ez izan
Erantzuten du munduak:
Gaur esaera orrek berak
Nastutzen dizkit pentzamentuak.
Zu!... irakurtutzen au aizerana
Baldin arkitzen ontan badezu
Zure gogoko ez dan gauzarik...
Ezaizula ezer!
Baña, a! iñoiz izan bazera
Aur naigarrien aita maitea
Eta biotza baldin bakazu
Penen meriyoz menderatua
Ta samindua eta urratua,
Orduan... a! baliteke
Alkar-aituko gerala biyok

II

Bitarte ontan ez gau ta egunik
Etzait batere gogoratutzen.
Egon leku bat topa nainuke
Ezere ez dana iñoiz ikusten.
Ez det kalerik biar geyago,
Ez det ezer nai dana konsola.
Aronz nai det nik non dan arkitzen
Ez beste gauzik ez! ez! iñola:
Non arkiko zaitut ai! maite!
Bizirik nago... baña noiz arte!!

Baña noiz arte...! bai! ori diot
Gaizki edo ondo ezana bada
Nere zentuzak, ez beste iñork
Adiarazitako asmoa da!
Zer da bizitz au...! Nere albotik
Nork banatu du nere maitea:
Sustrayetatik nork urratu nau
Ainbeste nai genuen lorea!
Zer gauza zaizkit iduritutzen!
Zenbat ots nigan diran aditzen!

Nere biotza, nere zentzua
Nere izatea, neroni dana,
Dardaraturik naukate mende
Nai nukiana ezin ezana!
Ta pillan-pillan jarritzen zaizkit

Oroitzak eta idurimenak
Ta bat egiñik bildutzen zaizkit
Lurreko atsekabe den-denak:
Ez banintzake orla zentitzen
Nola niteke onla mintzatzen!

Udaberria nola negua
Gaur neretzako dirade berdiñ,
Chimist-turmoiak ez nau bildurtzen,
Loreak ere ez nau atsegin!
Ta ala jayotzak, nola eriotzak
Gu geran dana zer da besterik?
Izate utza, kea, baterez,
Oyek ez dira neretzat baizik:
Bañan alaere ser gogorra dan
Gure samiña lurraren gan!

A! nork ematen dio indarra
Jayotzekoa gauza danari,
Nola itsasoan ta legorrean
Nola sortzen da izate ori;
Bale aundia nork bultzatzendu
Itsas aundia arro-arrorik:
Eta arranoa egazti aundia
Nola ez da erortzen goi goietatik:
Eta nik maite detan Jošecho
Nor eragiten nau ain maitecho!
.....!
Nork zuk ez bada, bai! Jaungoikoa!
Zu astu eta zer da munduan...

Bañan gure aurra, zegona ain ondo
Bere amaren ondo onduan
Nora da jua? Toki obero?
Ai! ala bada ala izan dedi!
O! Jaungoikoa zu gabe zer da!
Bañan zu gabe zerbait bagiña
Gure izatea litzake gauza
Erretzekoa egiñik autza!
Orregatikan nere oroipena
Urikalduen gaišo antzera,
O! Jaungoikoa etorkizunan
Argia azaltzen zait aurrera.
Nozki gure aurra eramandezu,
Gu gauden baño toki obero,
Baña noiz berriz laztanduko det
Nere besoan len-len bezela:
O! Jaungoikoa izan dedilla
Zuri dizun ai! borondatea!

III

O! zer artsalde išilla dagon!
O! zer! Illuntza geldi-geldia!
Aizeak ere mugitzen ez du
Arbolak daukan osto berria!
An urrutijan iya itzal pean
Azaldutzen da gurutz ezta:
Odoi illunak estaliko du
Eta arratsak aurki guzia
Gordeko ditu trunkil gabean
Nola itsaso nola mendia!

Ez det arkiko iñoiz munduan
Nere biotzak nai duen gauzik!
Ez du sentitzen nere izateak
Maite maitechoen oroitza baizik!
Orregatikan illun aldera
Jartzen naiz gora begiraturik!
Bañan gabaren zeruko izarrak
Ikuztez ditut ayek besterik!
Eta gabaren lenengo intza
İsuritzen zait begietatik.

Bai... itzal pean bildu dana...
Illargirikan ez da azaltzen
Mendien maldan dan baserrien
Leyoko argia doi-doi da igartzen!
Arkaitz aspiko erriken otsaila
O! zer garbiro detan aditzen!

.....
Ene biotza! ene zentzua!
Zer nai nazute orla nastutzen...

.....
Eguna illutzen duben ezkeroz
Zenbait geyago degun ikusten.

III

Zure ille kiškurrak
Aldebanaturik;
Arpegi biribilla
Barrenen bildurik:
Zure masail gorriškak
Ta larru zuria
Zure gan zenituen
Maitecho ezta.

Chapela egoduna,
Luma bere jiran,
Soñeko grisa eta
Ubela gerrian.
Galcheta belchak eta
Belaun gorrian,
Onela ikuste zaitut
Oraindik kalian.

Zortzi egun lenagoz
Zure eriotzaren
Ezan bezela alai
Ziñaden arkitzen;
Urrengo igandeko
Nor pentsatu leiken
Gure gandik Jošecho
Zala zeruratzen

Bost illabete ontan
Maitecho neria
Lorez estalitzen den
Zaudezen obia;
Eta bidean biltzen
Ditutan loriak
Baratz eta mendiko
Ori ta gorriak,
Ipiñitzen ditugu
Egiñik gañian
Gorriakin gurutza,
Koroak azpian,
Moreak ta zuriak
Jarririk nastian,
Eta zure izena
Danaren oñian.

Urrengo igandean
Joaten naizenean;
Zure gaingo loreak
A! igarturikan
Egoten dira denak
Jarriak lengoan!
Bañan berriro jartzen
Ditut an ordean
.....
A! zure gorputz šimur
Ta igarra
Pistutzeko balitz
Malko negarra!!

IV.

Ez nazazutela iñork galazi!
Zaute išilik
Arkaitzetako
Egazti kantariak!
Arnase!... etzaitezela
Ez, iñoiz larritu!
Gorputza...! itzul nai dezu joan?
Estuasun ori
Zerk eragiten nau jezan!
Zaude, zaude! nagon, nagon!
Etzaude bada!... ez nago bada
Leku naigarrianean!
Etzaude zelai santua?
Ez nago nere aita
Eta nere ama
Eta nere Jošecho maitea
Lotan betiko dauden lekuan!
Ez degu maite jayo echea?
Eta menditarrak bere echola?
Eta enarak bere kabiya?
Eta mariñelak itsasoa?
Eta bildoçhak estalpea?
Eta pištiak belar aspia?
Eta zergatik ain maite
Edo geyago
Ez degu izan bear
Lur santu ori;

Guretzat prest dagon
Zulo ori!
Pakean zekulako
Dezegin beardegun lekua!
Obi dontzu orren barrenen
Ez da gauz doaitzua
Batutzia
Alkar maite izan ziranak
Lurren gañean?
Eta gero or bertan
Gure puskak, gure antza
Nastuturikan
Gure otoitz danakin batean.

.
. !!

O! Jaungoikoa! Ez nekien
Zer ninzan ari!
Zure obi gañera begiratuaz
Ametzetan bezala ni joan banatzen!

V.

Zer bakartazun naigarria!
Zer zeru urdin garbia!
Lore gañera ere
Abiya da erlia
Zebillena jiraka
Zumo aren billa.
Eta nagon lekutik
Zentitzen det
Enararen ziyara
Ega zorrotza,
Eta maldan dijoan
Gurdien otsa.

VI.

Agur Joŕecho, nere asmoak
Besterik ez dira izan
Nere penari lazaitazun bat
Ematia baizikan:
Gaur gaur bezela ez nau bildurtzen
Eriotzak iñondikan,
Ta ill bearrak poztutzen banau
Badakizu zergatikan?
Zergatik maite nere maitecho
Izango det besoetan.
 Eta laztantzen guztiz maiterik
A! geralako gu zeruan
Ginan bezela lurrean!

DONOSTIAN

JAYO ETA ILL ZAN

JOŠECHO:

1893 garren urteko
Apirillaren X-an

ETA

1896 garren urteko
Otsaillaren IX-an

ERAISKIÑA

[ARGAZKIA]

JOŠECHO
Sei illabetekoa

AMA BATEN OTSA SEASKAREN
ONDOAN

NERE SEMEARI (1)

I

Zer darabiltzu nere maitia?
Nork du maitecho esnatu?
Ametsetatik ain ondo zeuden
Nork ote zaitu ernetu?
Norentzat dira far-irri oyek?
Nori bigaltzen dizkatzu?
Zu esnatutzen zeran guziyan
Ama jartzen da kontentu.

Zeñenak dira mušu gorriyak
Maindiriaren orrian
Diruritenak lorak daudenak
Sarjiñen osto tartian?
Nork zabalduzen ditu algarak
Orren alaicho echian?
Nork jarri zaitu usai gozozko
Seaska churi-churian?

Aitacho aurki datorrenean
Lanetik zure ondora,
O! zer pozakin laztan-musuka
Zaitun artuko besora!

(1) Josechok sei illabete zituenian berari donkitutako moldaera.

Ta bitartean gure Jošechok
Titia artuta gerora,
Lo egingo du, amak echeko
Lanak egiñik gustora.

A! nik ikusten zaitutanean
Lotan zaudela geldirik
Ille kiškurak darizutela
Kopetetikan jechirik,
Orduban nere barrenak ez du
Pentsatzen beste gauzarik
Jaunak zuretzat etorkizunan
Zer ote daukan gorderik!

Ez...! etzazula negarrik egin
Amacho dago ondoan
Eta negarrak amachori gaitz
Egiten dio kolkoan,
Ez, ez maitia, atoz nigana,
Artuko zaitut besoan
Ikusitzazun mutill chikiak
Jolasten gure auzoan.

II

Illunabarra badator
Gauza guztiak estaltzen,
Eguzkia zitubenak
Añ ederki apaintzen

Nere ondoko leyotik
Aditzen det izer gozo!
Aurrari nola ari dan
Ama kantari erazo:

«Nere maitia lo ta lo
Egingo degu gozoro.,....
Zuk orain eta nik gero
Biyak egingo degu lo!... o!... o!.,.»